

ETXEBIZITZA LIBREA ALOKATZEKO LAGUNTZAK, COVID-19 BIRUSAK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDORIOZ SORTUTAKO EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALEI AURRE EGITEKO.

Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Pertsona interesdunek 1. paragrafoko a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan aipatzen diren agiriak **ez aurkezteko** eskubidea dute, baldin eta etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak edo Alokabide, SA sozietateak beren sare korporatiboan bidez edo datu-bitartekaritarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan elektronikoki eskuragarri daudenak kontsultatzearen edo beste administrazio publiko batzuei eskatzearen aurka ez badaude.

Zuzeneko kontsulta horren aurka eginez gero, ezin izango zaio eskabideari biderik eman, gaur egungo alarma-egoeraren egoera kritikoa ez dagoelako arau erregulatuak eskatzen dituen betekizunak egiaztatzeko beste modurik.

Eskabidea alarma-egoera amaitu ondoren formalizatzen bada, pertsona eskatzailea administrazio arteko kontsultaren (elkarreragingarritasuna) aurka jartzen bada, pertsona horrek bere kabuz aurkeztu beharko du eskabidea izapidetzeko behar den dokumentazioa.

1. KASU GUZTIETAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (Programa Nagusia eta Osagarria)
Legezko ordezkariak egiaztatzeko agiriak, hala badagokio. Borondatezko Legezko Ordezkaritza Egilestea - Inprimaki normaldua
a) Erantzukizunpeko adierazpena, ondasun higiezinaren jabari osoaren edo erabilera- eta gozamen-eskubideen titularra ez dela (norberaren konturako jarduerarena izan ezik) eta 7. artikuluan aipatzen diren errenta, prestazio edo laguntza bateraezina jasotzen ez direla adierazteko. <i>(Eskabidean sartutako aitorpena)</i>
b) 50.000 eurotik gorako ondarea ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena. <i>(Eskabidean sartutako aitorpena)</i>
c) Errentapeko etxebizitzan erroldatuta egotearen erantzukizunpeko adierazpena, bereziki kalteberak diren pertsonen programa osagarrian sartutako etxegabeen kolektiboarentzat izan ezik. <i>(Eskabidean sartutako aitorpena)</i>
d) Diru-sarreraren egiaztagiria: <ul style="list-style-type: none">• Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena, eskaera egin aurreko zergaldiari dagokiona.• Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenari, hala badagokio, prestazio ez-kontributiboan ziurtagiria erantsiko zaio.• Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenaren kopiarik aurkezten ez dutenek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:<ul style="list-style-type: none">○ Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, data eguneratuarekin.○ PFEZren atxikipenengatiko ziurtagiri ofiziala (10T dokumentua).○ Ikerketarako beka edo laguntzen kasuan, hori justifikatzen duen ziurtagiria.
e) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzen direla dioen erantzukizunpeko adierazpena. Hala ere, organo kudeatzaileak edo erakunde laguntzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, dirulaguntza eman eta ordainketa egin aurretik. <i>(Eskabidean sartutako aitorpena)</i>
f) Eskatzaileen egoera zibilar buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Batera errentatuz gero, errentarien arteko harreman mota zehaztu behar da eta bakoitzak ordaintzen duen errentaren zenbatekoa adierazi. <i>(Eskabidean sartutako aitorpena)</i>
g) Hirugarrenak, errentariak edo, hala badagokio, errentatzaileak betetako alta agiria . Horren orde, errentatzailearen edo kreditu-erakundearen hirugarrenaren alta-agiria bete ahal izango da, 14. artikuluen 3. eta 4. ataletan aurreikusitako kasuetan.
2. ALOKATZEKO LAGUNTZETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (Programa Nagusia)
a) Errentamendu-kontratuari dagokion fidantza Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan gordailututa ez badago, kontratu horren kopia aurkeztu beharko da, honako datu hauek jasota: kontratatzaileen identitatea, errentapeko finkaren identifikazioa, itundutako iraupena eta hasierako errenta. Errentariak bat baino gehiago badira, eta kontratuan ez bada ageri haietako bakoitzari banaka ordaindu beharreko errentaren zenbatekoa, banakako zenbateko hori jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da. <i>(Eskabidean sartutako aitorpena)</i>
b) Gaur egun erabilgarri dauden diru-sarreraren egiaztagiria, langabeziagatiko prestazioen ordainagiria, nominak edo besteren konturako langileen agiri baliokideak aurkeztuz, eta langile autonomoen edo enpresaburuen sarrera eta gastuen erregistroei, autolikidazioei eta/edo zerga-ondorioetarako informazio-aitorpenen aurkezpenei buruzko kontabilitate-informazioa aurkeztuz.
c) Etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetzaren unitateko edozein kidearekin

	odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailara arteko familia-loturarik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena. (<i>Eskabidean sartutako aitortpena</i>)
d)	Errentatzaileak egindako erantzukizunpeko adierazpena, etxebizitzaren errenta osorik edo zati batean barkatu ez duela edo etxebizitzaren ordainketa aldi baterako eta ohiz kanpo atzeratu duela adierazten duena.
	<p>Kalteberatasun ekonomikoko egoera egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa. Garatutako jarduera 463/2020 Errege Dekretuaren eranskinean jasota ez dagoen kasuetan bakarrik.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Besteren konturako langileen kasuan, langabezia- edo azpienplegu-egoeraren eta Covid-19 birusak eragindako osasun-larrialdiak eragindako krisiaren arteko lotura egiaztatzen duen dokumentazioa. • Langile autonomoen edo enpresaburuen kasuan, 2020ko apirilko eta/edo maiatzeko eta/edo ekaineko eta/edo uztaileko eta alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturaleko diru-sarrerak edo salmentak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
3.	MAILEGUAK ITZULTZEKO LAGUNTZETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (Programa Nagusia)
	Programa nagusiaren eskatzaileek alokairuak ordaintzeko laguntza-modalitatean bete beharreko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.
4.	BEREZIKI KALTEBERAK DIREN PERTSONENTZAKO LAGUNTZETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (Programa Osagarria)
a)	Genero-indarkeriaren biktimak, oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo gizarte-zerbitzu espezializatuen epaia, urruntze-agindua edo txostena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera emanak.
b)	Etxetik berehala bota behar diren pertsonak, edo dagoeneko bota direnak, botatzea zehazten duen agiri judiziala.
c)	Etixerik gabeko pertsonak, erroldatze sozialaren edo fikziozko erroldatzearen erantzukizunpeko adierazpena
d)	Bereziki kalteberak diren beste pertsona batzuk, hala badagokio, erroldatzearen erantzukizunpeko adierazpena, familia-liburua, agintari publiko eskudunak emandako edozein desgaitasun-motaren ziurtagiria edo langabezia-egoeraren ziurtagiria.